

## **ENPRESAREN BALIO PROPOSAMENA**

Gazteek dirua lortzeko bide erraz bat da gure proiektua, hortaz, ez diete beraien gurasoei dirurik eskatu beharko eta beraiek dituzten nahiak norberak ordaindu ahalko ditu. Horrela, uste dugu gaur egungo gaztek independentzia eta autonomia gehiago lortuko dutela eta beraien etorkizunerako onuragarria izango dela balore hauek edukitzea.

Gure enpresa sortzerako orduan, beste enpresetatik diferentziatuko gintuen faktoreak bilatzen jardun genuen. Horretarako, hainbat aspektu hartu genituen kontuan. Aspektu horien artean, pertsonalizazioa, lana erraztea, marka edo estatusa, eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna aurkitzen dira.

Pertsonalizazioari dagokionez, gure web-gunean zure lan egokiena zein den bilatzeko galdetegi bat bete behar da zure datu pertsonal batzuk betez. Horrela, zure datuak edukita zuri pertsonalki lan bat egokituko zaizu, zure abilezien eta beharren baitan.

Bestalde, lana errazterako orduan web-gune hasieran lana bilatzeko test bat izango duzu zure zaletasun eta gaitasunak baloratzeko eta horren arabera zuretzat egokia den lanpostua aukeratzeko proposamen bat egiten dizu zuk bilatu beharrean, lana erraztuz zuri.

Berriz, marka edo estatusari dagokionez, gure markaren estatusa ona izango da, gainera beste erakundeekin kolaboratuko dugu gure proiektuan eta honek estatusa hobetzen du, jende gehiagok ezagutuko duelako gure proiektua. Adibidez, Ordo Zelai sagardotegiarekin kolaboratzea pentsatu dugu, eta horrela, beste jatxete, taberna, denda eta enpresekin, gazteei lan emateko prest egoten baitira enpresa hauek. Egiluze enpresarekin ere harremanetan jarriko gara.

Horrez gain, enpresa sortzerakoan eskuragarritasun handia izan zezan edonorrentzat eskura egotea bilatu genuen, hau da, edozein sartu daiteke web-gunera eta hemen lana bilatu.

Azkenik, gure web-gunea erabiltzeatzekoan oso erraza izatea bilatu nahi genuen. Horregatik, bertan zure lan eskaera egiteko eman behar dituzun pausuak azaltzen dira argi eta garbi.